

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

2768

EBAZPENA, 2022ko ekainaren 3koa, Kulturako sailburuordearena, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2021eko abenduaren 7ko Aginduaren babesean aurkeztutako dirulaguntza-eskabideen gainean hartutako ebazpena jakinaraztekoa. Agindu horren bidez, arte eszenikoen eta musikalen azpiegiturak modernizatzeko eta modu jasangarrian kudeatzeko dirulaguntzak arautu eta deialdia egiten da.

2021eko abenduaren 29an argitaratu zen EHAA 2021eko abenduaren 7ko Agindua, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, arte eszenikoen eta musikalen azpiegiturak modernizatzeko eta modu jasangarrian kudeatzeko dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena (Europar Batasunak finantzaturako NextGenerationEU Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan, 2021. urteari dagokiona).

Aipaturiko aginduaren 14.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdian aurreikusitako dirulaguntzen ebazpena prozeduran interesdun diren guztiei jakinaraziko zaie, eta, ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea, agindu honen eranskinean azaltzen den bezala, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2021eko abenduaren 7ko Aginduaren babesean emandako dirulaguntzak.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 3a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

2022ko ekainaren 20a, astelehena

ERANSKINA

ESKATZAILEEN ZERRENDA, PROIEKTUAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZA

Eskatzailea	IFK	Proiektua	Dirulaguntza (eurotan)
Asociación cultural D 8 Sorkuntza faktoria	G95944161	Modernización espacio escénico D8SF	90.494,50
Asociación Hacería Arteak	G48883342	La Terminal FICC, Fabrica de industria cultural y creativa inteligente	93.689,94
Azala espacio de Creación y alojamiento rural S.L.	B01439025	Ser bosque	40.176,66
Centro Azkuna de Ocio y cultura S.A.	A95369849	Modernización Infraestructura de Artes escénicas y música	106.921,79
Errenteriako Udala	P2007200E	Lekuona fabrika	175.255,65
Garaion Naturarte Elkarte	G01441989	Garaion antzokia	79.129,46
Harrobia Asoc. para la Innovacion en Produccion Escenica	G95672978	Harrobia huntza·hiedra	239.546,45
Victoria Eugenia Antzokia S.A.	A20965414	Un teatro centenario que camina hacia el futuro	153.135,46